



21. ORDENANTZA FISKALA, MUSIKA ESKOLAKO IKASTAROEN TASAK ARAUTZEN DITUENA.

I. OINARRIA ETA IZAERA

1. ARTIKULUA

Erandioko Udalak, Udal Musika Eskolako zerbitzuen gaineko Tasak ezarri eta eskatzen ditu Ordenantza honetan xedatuaren arabera eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritz. Ordenantzaren eranskinean jasotzen dira aplikagarri diren tarifak.

2. ARTIKULUA

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA

3. ARTIKULUA

Udal Musika Eskolak eskainitako irakaskuntza teorikoa eta praktikoa da tasa honen zergagaia.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. ARTIKULUA

Ondorengo hauek dira, zergadun moduan, tasaren subjektu pasibo: pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 34 eta 35. artikuluan aipatutako erakundeak, beti ere Udal Musika Eskolak eskainitako irakaskuntza teorikoa eta praktikoa jasotzeko matrikula egiten badute.

5. ARTIKULUA

Tasa ordaindu beharra dute Udal Musika Eskolaren zerbitzuak erabiltzen dituzten edo zerbitzu horien onuradun diren pertsona fisikoak, juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 34 eta 35. artikuluan aipatutako erakundeak edo, bestela, horien legezko ordezkariak.

IV. ZERGA OINARRIA

6. ARTIKULUA

Zerbitzua gauzatzeko unitate bakoitza da zerga-oinarria, eranskinean jasotako tarifetan azaldutakoaren arabera.

V. KUOTA

7. ARTIKULUA

Aurreko artikuluan adierazitako zerga-oinarriari dagokion tarifa aplikatuz finkatuko da kuota.



VI. SORTZAPENA

8. ARTIKULUA

Udal Musika Eskolak ematen dituen zerbitzuak eta jarduerak erabiltzean eta ikasturteko matrikula egitean sortuko da tasa eta tasa ordaindu beharra.

VII. LIKIDAZIOA ETA SARRERA

9. ARTIKULUA

1. Matrikula egitean ordainduko dira Tarifen atalean adierazitako matrikularen zenbatekoak, Udal Musika Eskolak interesatuen eskura jarriko duen bankuko abonu-agiriaren bitartez.

2. Irakaskuntza-kuoten ordainketa banketxe edo aurrezki kutxaren batetan helbideratzeko baimena eman beharko dute interesatuek eta horretarako bidezko den dokumentazioa beteko dute.

3. Interesatuak adierazitako kontuan zordunduko zaizkio hileroko kuotak, ikasturteko gainontzeko hilabeteetako 5. eta 10. egunen artean.

4. Bidezko den ordainketa egiten ez badu, zerbitzuaren emakida bertan behera geldituko da.

5. Matrikula bertan behera utziz gero, honako kasu hauetan baino ez da egingo ordaindutako tasaren itzulketa: urria amaitu baino lehen egiten bada eta azalpena arrazoizkoa bada.

VIII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

10. ARTIKULUA

Zergen arloko arau-hausteak eta dagozkien zehapenak direla eta, Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean, horren garapenerako araudietan eta Kudeaketa, Ikuskatzailletza eta Biltzailletzari buruzko Udal Ordenantza Fiskalean ezarritakoa aplikatuko da.

IX. XEDAPEN GEHIGARRIA

Aurrekontuei buruzko Foru Arauen bidez zein zuzenean aplikagarri diren bestelako arau edo xedapenen bidez Tasaren araubidean gertatzen diren aldaketek Ordenantza Fiskal honen aldaketa eragingo dute, besterik gabe.

X. AZKEN XEDAPENA

Honako Ordenantza hau 2008ko apirilaren 29an izandako Osoko Bilkuran aldatu du Udaltza Osoak, 2008-2009 ikasturtean sortuko ditu ondorioak eta indarrean iraungo du harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.

**ERANSKINA****2009/2010 IKASTURTEKO TASAK****1. MAILA:****4 URTEKO NESKA-MUTILAK:**

30 minutuko bi eskola astean.

Matrikula.....	59,00 €
Hilekoa.....	19,30
€	
IKASTURTEA OSOTARA.....	252,00 €

5 URTEKO NESKA-MUTILAK:

30 minutuko bi eskola astean.

Matrikula.....	59,00
€	
Hilekoa.....	19,30
€	
IKASTURTEA OSOTARA	252,00 €

6 URTEKO NESKA-MUTILAK:

Bi eskola astean, bakoitza 45 minutukoa, eta musika-tresna aurreko beste bi saio, bakoitza 15 minutukoa (4/6 ikasleko taldeak).

Matrikula.....	59,00
€	
Hilekoa.....	27,20
€	
IKASTURTEA OSOTARA	331,00 €

2. MAILA:**ZAZPI URTEKO NESKA-MUTILAK (Hastapenak: musika mintzaira eta musika-tresna):**

Ikasgaiak:

Musika mintzaira: 45 minutuko bi eskola astean

Musika-tresna: 30 minutuko banan-banako eskola bat astean, edo astean ordu beteko eskola konpartitua.

Matrikula	104,50
€	
Hilekoa	30,30
€	
IKASTURTEA OSOTARA	407,50
€	

7 URTETIK GORAKO IKASLEAK:

Ikasgaiak:



Musika mintzaira- 45 minutuko bi eskola astean

Musika-tresna - 30 minutuko banan-banako eskola bana astean, edo ordu beteko eskola konpartitu bat.

Korua edo musika-tresna taldea - Korua: 45 minutuko eskola bat astean. Musika-tresna taldea: ordubeteko eskola bat astean.

Matrikula	104,50 €
Hilekoa	38,70 €
IKASTURTEA OSOTARA	491,50 €

Musika-tresna, musika mintzaira eta taldekako jardueren hileko prezioa, bakoitza bere aldetik:

Musika-tresna (astean ordu erdi)	20,40 €
Musika-hizkuntza (astean 1 h. 30')	16,20 €
Taldekako jarduera: korua, orkestra, ganbara, laguntzeko gitarra, e.a.:	6,80 €
Musika-hizkuntza, errefortzua (astean 45'):	7,80 €
Musika-hizkuntza, laguntza (astean 45'):	7,80 €
Erritmo ikastaroa (astean 45')	7,80 €
Teoria ikastaroa (astean 45')	7,80 €
Musika-hizkuntza, helduentzat (astean ordubete):	16,20 €

3. MAILA:

Matrikula eta hileko kostua bigarren mailakoaren parekoa.

ORKESTRATAN, MUSIKA-TRESNA TALDETAN EDO KORUTAN PARTE HARTZEN DUTEN IKASLEAK

Ikasle horiek hilabeteko bat besterik ez dute ordaindu behar:..... 6,80 €

Musika Eskolako Orkestran parte hartzen duten ikasleei hilabeteko bakoitzean %50eko deskontua egingo diete, ikasle bekadunak bailiran.

IKASTURTEAN ZEHAR ANTOLATUTAKO IKASTAROAK:

Matrikula:.....59,00 €

MUSIKA-TRESNAK ALOKATZEA

Musika-tresnak erabiltzen uzteko eskatzen dutenek ondoko tasak ordaindu behar dituzte:

- Hiruhilabete 1 (500 €arteko musika-tresnak):..... 17,20 €
- Hiruhilabete 1 (500 eta 1.200 €arteko musika-tresnak): 28,20 €



- Hiruhilabete 1 (1.200 eurotik gorako musika-tresnak): 50,70 €

EMANALDIK ETA KONTZERTUAK

Programatutako kontzertuetara eta bestelako emanaldietara joan nahi dutenek ondoko tarifa hauek ordain behar dituzte, ekitaldiaren kostuaren arabera:

- 300 € arteko emanaldiak: 1,60 €
- 1.800 € arteko emanaldiak: 3,70 €
- 3.000 € arteko emanaldiak: 5,80 €
- 5.000 € arteko emanaldiak: 6,80 €
- 6.000 € arteko emanaldiak: 7,80 €

BESTE KUOTA BATZUK

Ikasturtean behin ordaintzekoak:

Eskolako materiala:12,00 €
 Eskola-asegurua:9,90 €
 €

MATRIKULAREN BESTE ZENBAIT BALDINTZA:

- **Deskontuak** matrikulan:

Musika Eskolan bi anaia-arreba izanez gero:%
 25

Kategoria orokorreko sendi ugariko kideak:%
 50

Kategoria bereziko sendi orokorreko kideak:%
 60

- **Gehikuntzak:** Erandion bizi ez direnek % 50 gehiago ordainduko dute bai matrikulan eta baita hileroko kuotetan ere.